

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Iragarkia

Mankomunitate honetako lehendakariak, 2021eko irailaren 8ko ebazpen bitartez, zera erabaki du:

1. Debagoieneko Kirol Elkarteei jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan prestakuntza programa arautuak eta ez-arautuak burutzeko diru-laguntzak emateko 2021eko deialdia onartzea.

2. 9.000 €-ko gastua baimentzea 2021eko Aurrekontu Orokorren 1600.490.341.00.01 partidaren kargura, deialdi honi aurre egiteko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesatuek Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, iragarki honen argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Mankomunitateko lehendakariari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo uzteko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Debagoieneko kirol elkarteei jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan prestakuntza programa arautuak eta ez-arautuak burutzeko diru-laguntzak emateko 2021eko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

Deialdi honen Ordenantza arautzailea Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2021eko ekainaren 22an egindako bilkuran, eta 2021eko irailaren 8ko 172 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

2. Aurrekontu kredituak eta diru-laguntzen zenbatekoa.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 9.000 €-koa izango da, eta Mankomunitateko 2021eko Aurrekontu Orokorren 1600.490.341.00.01 partidaren kontura emango dira, honako xehetasun honen arabera:

- * 8.000 € prestakuntza arautua diruz laguntzeko.
- * 1.000 € prestakuntza ez-arautua diruz laguntzeko.

Aurkeztutako eskabide guztiak baloratu ondoren diru-laguntzen bi lerroetako batean soberakina gertatzen bada, soberakin hori beste lerroa bideratuko da.

Deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak lagunduko dira diruz, honela:

* Lehenik eta behin, matrikula-gastuak diruz lagunduko dira, kostuaren % 75eraino. Ehuneko hau handiagoa izango da ondorengo kasuetan:

— Ikasketak euskaraz eginez gero % 5eko gehigarria izango du.

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Anuncio

La Presidenta de esta Mancomunidad, mediante Resolución de fecha 8 de septiembre de 2021, ha acordado:

1. Aprobar la convocatoria de 2021 de subvenciones a las asociaciones deportivas de Debagoiena para la realización de programas formativos reglados y no reglados en el ámbito de la actividad física y el deporte.

2. Autorizar un gasto de 9.000 € con cargo a la partida 1600.490.341.00.01 del Presupuesto General de 2021 para hacer frente a la presente convocatoria.

La presente resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, los interesados, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Presidencia de la Mancomunidad en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Convocatoria 2021 de subvenciones a las asociaciones deportivas de Debagoiena para la realización de programas formativos reglados y no reglados en el ámbito de la actividad física y el deporte.

1. Bases reguladoras.

La Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones objeto de la presente convocatoria fue aprobada por la Junta de Gobierno de la Mancomunidad en sesión celebrada el día 22 de junio de 2021, y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 172, de fecha 8 de septiembre de 2021.

2. Créditos presupuestarios y cuantía de las subvenciones.

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 9.000 €, con cargo a la partida 1600.490.341.00.01 del Presupuesto de esta Mancomunidad para el ejercicio 2021, según el siguiente detalle:

- * 8.000 € para subvencionar la formación reglada.
- * 1.000 € para subvencionar la formación no reglada.

Si tras la valoración de todas las solicitudes presentadas resultara excedente en alguna de las dos líneas de subvención, este excedente se destinará a la otra línea.

Se subvencionarán la totalidad de solicitudes que reúnan los requisitos exigidos en la convocatoria, de la siguiente forma:

* En primer lugar, se subvencionarán los gastos de matrícula hasta un 75 % de su coste. Este porcentaje será superior en los siguientes casos:

— Si la formación se ha realizado en euskera, un 5 % adicional.

– Kirol elkarteak euskararen erabilera plana indarrean izateak % 5eko gehigarria izango du.

– Prestakuntza egin duena emakumezkoa izateak % 5eko gehigarria izango du.

Ehuneko gehigarri horiek metagarriak izango dira.

Matrikula-gastuengatik eman beharreko diru-laguntzen zenbateko osoa dagokion aurrekontu-partidan esleitutako gehienera zenbatekoa baino handiagoa bada, Mankomunitateak eskabide guztien artean hainbanatuko du.

* Matrikula-gastuak diruz lagundu ondoren soberakina bada, joan-etorrien gastuak lagunduko dira diruz, kostuaren % 50eraino. Horretarako, joan-etorrien gastu hauek hartuko dira kontuan:

– Ibilgailu partikularra erabiliz gero, kilometroko 0,29 euroko gastua hartuko da kontuan, gehi autobideko eta aparkalekuko gastuak. Kilometro-kopurua kalkulatzeko, erakunde eskatzailearen egoitza soziala hartuko da kontuan.

– Alokutatutako ibilgailua bada, alokairuaren, erregaiaren, autobidearen eta aparkalekuaren gastuak hartuko dira kontuan.

– Hegazkina, trena, autobusa edo bestelako garraio publikoa erabiltzen bada, txartel arruntaren zenbatekoa hartuko da kontuan.

Joan-etorrien gastu horiengatik eman beharreko diru-laguntzen zenbateko osoak gainditzen badu matrikula-gastuen diru-laguntzaren ondoriozko soberakina, Mankomunitateak soberakin hori eskabide guztien artean hainbanatuko du.

* Eta, azkenik, joan-etorrien gastuak diruz lagundu ondoren soberakina bada, ostatu- eta dieta-gastuak lagunduko dira diruz, kostuaren % 50eraino. Horretarako, ostatu- eta dieta-gastu hauek hartuko dira kontuan:

– Gastutzat gehienez berrogeita hamar (50) euro hartuko dira ostaturako, eta hogeita hamar (30) euro mantenu-dieta gisa, pertsona eta egun bakoitzeko. Diruz lagun daitezkeen egunak kalkulatzeko, prestakuntza-egunak gehi joateko eta itzultzeko egun bat hartuko dira kontuan.

Kirol-elkarte bakoitzari emandako dirulaguntza ezin izango da, inola ere, bere prestakuntza-jardueraren kostu osoaren % 50 baino handiagoa izan, ez eta 1.000 euro baino handiagoa ere.

Ikastaroak 10 ordu iraun beharko du, gutxienez, dirulaguntza jasotzeko.

Ostatu- eta dieta-gastuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko prestakuntzaren kasuan bakarrik lagunduko dira diruz, betiere Erkidegoan prestakuntza hori ematen ez bada.

3. Diru-laguntzen xedea.

Diru-laguntza hauen helburua da Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako kirol-elkarteetako pertsonalak jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren arloan duen prestakuntza hobetzea.

4. Diru-laguntzak emateko erregimena.

Diru-laguntza hauek norgehiagokako erregimenean emango dira.

5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak.

Diru-laguntza hauen onuradun izan ahalko dira, baldin eta diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako diru-laguntzak lortzeko debeku-kausarik ez badute, Mankomunitate honen lurralde-eremuan (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati udalerriak) egoitza duten kirol-elkarteak baldin eta 2021/01/01-2021/11/30 epean prestakuntza arautua edo ez-arautua amaitu duten kirol-teknikari, epaile, komisario, arbitro eta kronometratzaileak atxikita badituzte; beti ere dagozkien kirol-titulazioak edo -akreditazioak

– La existencia de un plan de uso del euskera en vigor en la Asociación Deportiva solicitante de la subvención, un 5 % adicional.

– Si la persona que ha realizado la formación es mujer, un 5 % adicional.

Estos porcentajes adicionales serán acumulativos.

En el caso de que el importe total de las subvenciones a conceder por los gastos de matrícula supere la cantidad máxima consignada en la partida presupuestaria correspondiente, la Mancomunidad procederá al prorrateo de la misma entre todas las solicitudes.

* Si tras subvencionar los gastos de matrícula resultara excedente, se subvencionarán los gastos de desplazamiento hasta un 50 % de su coste. A estos efectos se tendrán en cuenta los siguientes gastos de desplazamiento:

– En caso de utilizar vehículo particular, se considerará un gasto de 0,29 euros por kilómetro, más gastos de autopista y parking. El número de kilómetros se calculará a partir del domicilio social de la entidad solicitante.

– Si se trata de un vehículo alquilado, se considerará el gasto del alquiler, combustible, gastos de autopista y aparcamiento.

– En caso de utilizar un avión, tren, autobús u otro transporte público, se considerará el importe del billete ordinario.

Si el importe total de las subvenciones a conceder por estos gastos de desplazamiento supera el excedente resultante de la subvención de los gastos de matrícula, la Mancomunidad procederá al prorrateo del citado excedente entre todas las solicitudes.

* Y si, por último, tras subvencionar los gastos de desplazamiento resultara excedente, se subvencionarán los gastos de alojamiento y dietas hasta un 50 % de su coste. A estos efectos, se tendrán en cuenta los siguientes gastos de alojamiento y dietas:

– Se considerará como gasto un importe máximo de cincuenta (50) euros para alojamiento y de treinta (30) euros en concepto de dieta de manutención, por persona y día. Para el cálculo de los días subvencionables se tendrán en cuenta los días de formación más un día de ida y otro de vuelta.

En ningún caso podrá superar la subvención concedida a cada Asociación Deportiva el 50 % del coste total de su actividad formativa ni la cuantía de 1.000 euros.

La duración mínima del curso para ser subvencionado será de 10 horas.

Los gastos de alojamiento y dietas sólo serán subvencionables en el caso de formación fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que en esta Comunidad no se imparta dicha formación.

3. Objeto de las subvenciones.

Estas subvenciones tienen por objeto mejorar la formación en el ámbito de la actividad física y deportiva del personal de las Asociaciones Deportivas de los municipios integrantes de la Mancomunidad.

4. Régimen de concesión de la subvención.

La concesión de la subvención se efectuará mediante concurrencia competitiva.

5. Requisitos para solicitar la subvención.

Podrán acceder a estas subvenciones, siempre que no incurran en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones recogidas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones, las asociaciones deportivas domiciliadas en el ámbito territorial de la Mancomunidad, esto es, en los municipios de Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga y Oñati, que tengan adscritos técnicos deportivos, jueces, comisarios, árbitros y cronometradores que hayan finalizado su formación reglada o no reglada en el perio-

lortu badituzte edo prestakuntza-orduen % 80ra edo gehiagora bertaratu direla egiaztatzen badute.

6. *Diruz lagungarri diren jarduerak.*

Diruz lagundu ahal izango da:

A) Debagoieneko kirol-elkarteei atxikitako kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak eta kronometratzaileak egindako prestakuntza arautua, dagozkion kirol-titulazioak edo -egiaztapenak lortu baditu edo prestakuntza-orduen % 80ra edo gehiagora bertaratu dela egiaztatzen bada.

B) Debagoieneko kirol-elkarteei atxikitako kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak eta kronometratzaileak egindako arautu gabeko prestakuntza, dagozkion kirol-titulazioak edo -egiaztapenak lortu baditu edo prestakuntza-orduen % 80ra edo gehiagora bertaratu dela egiaztatzen bada.

A) eta B) ataletan egindako prestakuntzak lotura zuzena izan beharko du kirol-elkarteari sustatutako kirol-modalitatearekin (Eusko Jaurlaritzaren kirol-erakundearen erregistroan izendatutako modalitatearekin edo modalitateekin bat etorri beharko du).

Prestakuntza hori Mankomunitatearen lurralde-eremuko kirol-elkarteari bati atxikitako langileek egin beharko dute (kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak eta kronometratzaileak).

Prestakuntza-ekintza horiek 2021/01/01-2021/11/30 epean amaituta egon beharko dute.

7. *Prozedura agintzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.*

Diru-laguntzen deialdia egitea Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariari dagokio, eta berak hartutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura garatzea Debagoieneko kontu-hartzaileari dagokio, eta berorrek erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeke egoki irizitako behar besteko jarduketak egingo ditu ofizioz.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, kontu-hartzaileak, udal kirol teknikariaren aholkularitzarekin, eskatzaileak onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela baieztatuko du eta aurkeztutako dokumentazioa osoa eta zuzena dela.

Kontu-hartzaileak eskaerei buruzko balorazio txostena egin du.

Eskaerak ebaluatuta, prozedura erabakitzeke proposamena Kirol Batzorde Informatiboak egingo du eta Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntara eramango du, bera baita erabakia hartzeko organo eskuduna.

8. *Diru-laguntzak eskatzeko modua eta epea.*

Diru-laguntza hauek lortzea nahi duten erakundeek, Debagoieneko Mankomunitateko web orrian (www.debagoiena.eus) dagoen eredu normalizatuari egokitutako eskaera aurkeztu beharko dute. Eskaerak honela aurkeztu ahal izango dira:

- Elektronikoki.
- Mankomunitatean bertan (Nafarroa Etorbidea, 17. Arrasate).
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz.

do 01/01/2021-30/11/2021, habiendo obtenido las titulaciones o acreditaciones deportivas correspondientes o acreditando una asistencia igual o superior al 80 % de las horas de formación.

6. *Actuaciones subvencionables.*

Podrá ser objeto de subvención:

A) Formación reglada realizada por el técnico deportivo, juez, comisario, árbitro y cronometrador adscritos a las asociaciones deportivas de Debagoiena, habiendo obtenido las titulaciones o acreditaciones deportivas correspondientes o bien acreditando una asistencia igual o superior al 80 % de las horas de formación.

B) Formación no reglada realizada por el técnico deportivo, juez, comisario, árbitro y cronometrador adscritos a las asociaciones deportivas de Debagoiena, habiendo obtenido las titulaciones o acreditaciones deportivas correspondientes o bien acreditando una asistencia igual o superior al 80 % de las horas de formación.

La formación realizada tanto en el apartado a) como en el apartado b) deberá estar directamente relacionada con la modalidad deportiva promovida por la asociación deportiva (deberá coincidir con la modalidad o modalidades designadas en el registro de entidades deportivas del Gobierno Vasco).

Esta formación deberá haber sido realizada por personal (técnicos deportivos, jueces, comisarios, árbitros y cronometradores) adscrito a alguna de las asociaciones deportivas domiciliadas en el ámbito territorial de la Mancomunidad.

Estas acciones formativas deberán haberse finalizado en el periodo 01/01/2021-30/11/2021.

7. *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento.*

La convocatoria de las subvenciones corresponderá a la Presidencia de Debagoieneko Mankomunitatea mediante resolución publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones se desarrollará por el Interventor de Debagoieneko Mankomunitatea, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Interventor, con el asesoramiento de los técnicos deportivos municipales, verificará el cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de las entidades solicitantes y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

El Interventor emitirá un informe de valoración de las solicitudes.

Una vez evaluadas las solicitudes, la Comisión Informativa de Deportes emitirá la propuesta de resolución correspondiente, que será elevada a la Junta de Gobierno de la Mancomunidad, que es el órgano competente para resolver.

8. *Forma y plazo de presentación de solicitudes de subvención.*

Las entidades que deseen optar a estas subvenciones deberán presentar su solicitud ajustada al modelo normalizado, que se encuentra a su disposición en la página web de la Mancomunidad (www.debagoiena.eus), de la siguiente forma:

- Electrónicamente.
- En la propia Mancomunidad (Nafarroa Etorbidea, 17 de Arrasate).
- Por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Kirol-elkarte bakoitzeko diru-laguntza eskaera bakarra aurkeztuko da, bertan egindako prestakuntza-jarduera guztiak jasoz.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik 2021eko abenduaren 10era arte luzatuko da.

Ondo betetako eskaera eredu normalizatuarekin batera, eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

1. Elkartearen eskritura edo eraketa-agiria, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Erakundeen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

2. Kirol Elkartearen ordezkariaren edo arduradunaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta haren ordezkariaren egiaztagiria.

3. Identitate fiskalaren txartelaren kopia.

4. Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, ziurtatzeko bere izenean kontu korronte bat duela.

5. Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunekiko ordainketak egunean dituela dioten ziurtagiriak.

6. Diru-laguntza eskaera honetako jarduerak finantzatzeko jasotako beste diru-laguntza edo sarreraren zenbatekoa adierazten duen zinpeko aitortpena.

7. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotearen zinpeko adierazpena.

8. Diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntza egin duen pertsona kirol-Elkarteari atxikita dagoela egiaztatzea.

9. Pertsona bakoitzak (kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak edo kronometratzaileak) egindako diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntza-jarduerarekin lotutako dokumentazioa:

– Diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntzaren deskribapena: programa eta iraupena.

– Matrikularen ordainagiria.

– Lortutako kirol-titulazioaren egiaztagiria edo prestakuntza-orduen % 80ko edo hortik gorako bertaratzearen egiaztagiria.

– Bidaia-gastuen egiaztagiriak, hala badagokio.

– Ostatu-gastuen eta dieten egiaztagiriak, hala badagokio.

– Prestakuntza euskaraz egin dela egiaztatzen duen agiria, hala badagokio.

10. Euskararen erabilera plana indarrean duela egiaztatzen duen agiria, hala badagokio.

9. *Erabakitze eta jakinarazteko epea.*

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak erabakitze organo eskuduna Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Junta izango da.

Dagokion erabakiak hartu eta horiek argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da eta eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasiko da kontatzen.

Aipatutako epe muga igarota erabakia jakinarazi ez bazaio edo argitaratu ez bada, legitiमतuko du eskatzailea administrazio isiltasunez ezetsi dela ulertzeko.

Prozeduraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoko Ohiko Prozedura Administrazioaren urriko 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Se presentará una única solicitud de subvención por cada Asociación Deportiva, en la que se incluya la totalidad de actividades formativas realizadas.

El plazo de presentación de solicitudes se extenderá desde la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la presente convocatoria hasta el día 10 de diciembre de 2021.

Junto con el impreso normalizado de solicitud debidamente cumplimentado, los solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

1. Escritura o documento de constitución de la Asociación y acreditación de su inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

2. Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del representante o responsable de la Asociación Deportiva y acreditación de su representación.

3. Copia de la tarjeta de identificación fiscal.

4. Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre.

5. Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

6. Declaración jurada en la que se haga constar la cuantía de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos recibidos que financien las actividades objeto de la solicitud de subvención.

7. Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre.

8. Acreditación de la adscripción a la Asociación Deportiva de la persona que ha realizado la formación objeto de la solicitud de subvención.

9. Documentación relacionada con la actividad formativa objeto de la solicitud de subvención realizada por cada persona (técnico deportivo, juez, comisario, árbitro o cronometrador):

– Descripción de la formación objeto de la solicitud de subvención: programa y duración.

– Recibo del pago de la matrícula.

– Acreditación de la titulación deportiva obtenida o Certificado acreditativo de una asistencia igual o superior al 80 % de las horas de formación.

– Justificantes de los gastos de desplazamiento, en su caso.

– Justificantes de los gastos de alojamiento y dietas, en su caso.

– Acreditación, en su caso, de que la formación se ha realizado en euskera.

10. Acreditación, en su caso, de la existencia de un plan de uso del euskera vigente.

9. *Plazo de resolución y notificación.*

El órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases será la Junta de Gobierno de la Mancomunidad.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento será de dos meses, a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesatuek Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko Mankomunitatearen Gobernu Juntari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berriazko ebazpena eman edo uzteko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Arrasate, 2021eko irailaren 8a.—Lehendakaria.

(5919)

La resolución pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los interesados, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno de la Mancomunidad en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Mondragón, a 8 de septiembre de 2021.—La presidenta.

(5919)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EREDUA
Modelo de solicitud de subvención

Eskaera aurkezten duen pertsonaren datuak / Datos sobre la persona que presenta la solicitud

IZEN ABIZENAK /Nombre y apellidos	NAN / DNI
--	------------------

Kirol Elkartearen datuak / Datos sobre la Asociación Deportiva

ZEINEN IZENEAN /En nombre de quién	IFK/CIF
HELBIDEA / Dirección	HERRIA / Población

Jakinarazpenak bidaltzeko datuak / Datos para envío de notificaciones:

HELBIDEA / Dirección		HERRIA / Población
TELEFONOA	TFNO. MUGIKORRA / Tfno. móvil	E-maila

Egindako prestakuntzari buruzko datuak / Datos sobre la formación realizada:

Egindako prestakuntza /Formación realizada	Prestakuntza egin duen pertsona /Persona que ha realizado la formación
Prestakuntzaren amaiera-data / Fecha de finalización de la formación	Egindako prestakuntzaren hizkuntza /Idioma de la formación realizada

Egindako prestakuntzaren gastuak / Gastos formación realizada

Matrikula gastuak /Gastos de matrícula	Joan-etorrietako gastuak /Gastos de desplazamiento
Ostatu- eta dieta-gastuak / Gastos de alojamiento y dietas	PRESTAKUNTZAREN GASTUAK GUZTIRA /TOTAL GASTOS FORMACIÓN



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

ZINPEKO AITORPENA

Declaración jurada

ZINPEKO AITORPENA / Declaración jurada

AITORTZEN DU berak ordezkatzeko duen elkarteak:

DECLARA que la Asociación a la que representa:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru-laguntzak jasotzeko debekurik ez duela.
Que no está incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.
- Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen ondorioz administrazio-zigorrik jaso, ez eta zigor penalik ere.
Que no ha incurrido en discriminación sexual ni ha sido sancionado ni administrativa ni penalmente como consecuencia de la Ley para la igualdad de hombres y mujeres.
- Diru-laguntzaren eskaera honen xede den prestakuntza finantzatzeko jasotako diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zenbatekoa honako hau dela:.....€.
Que la cuantía de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos recibidos para la financiación de la formación objeto de la presente solicitud de subvención asciende a la suma de €.

Honako agiri hauek erantsi dira/Se adjunta la siguiente documentación:

1. **Elkartearen eskritura edo eraketa-agiria, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria/ Escritura o documento de constitución de la Asociación y acreditación de su inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.**
2. **Kirol Elkartearen ordezkariaren edo arduradunaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta haren ordezkariaren egiaztageria/ Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del representante o responsable de la Asociación Deportiva y acreditación de su representación.**
3. **Identitate fiskalaren txartelaren kopia/ Copia de la tarjeta de identificación fiscal.**
4. **Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, ziurtatzeko bere izenean kontu korrante bat duela/ Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre.**
5. **Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunekiko ordainketak egunean dituela dioten ziurtagiriak/ Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.**



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

6. **Diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntza egin duen pertsona kirol-elkarteari atxikita dagoela egiaztatzea/** Acreditación de la adscripción a la Asociación Deportiva de la persona que ha realizado la formación objeto de la solicitud de subvención.
7. **Pertsona bakoitzak (kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak edo kronometratzaileak) egindako diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntza-jarduerarekin lotutako dokumentazioa:**
- Diru-laguntzaren eskaeraren xede den prestakuntzaren deskribapena: programa eta iraupena.
 - Matrikularen ordainagiria.
 - Lortutako kirol-titulazioaren egiaztagiria edo prestakuntza-orduen % 80ko edo hortik gorako bertaratzearen egiaztagiria.
 - Joan-etorrien gastuen egiaztagiria, hala badagokio.
 - Ostatu-gastuen eta dieten egiaztagiria, hala badagokio.
 - Euskararen erabilera plana indarrean duela egiaztatzen duen agiria, hala badagokio.

Documentación relacionada con la actividad formativa objeto de la solicitud de subvención realizada por cada persona (técnico deportivo, juez, comisario, árbitro o cronometrador) :

- Descripción de la formación objeto de la solicitud de subvención: programa y duración.
 - Recibo del pago de la matrícula.
 - Acreditación de la titulación deportiva obtenida o Certificado acreditativo de una asistencia igual o superior al 80% de las horas de formación.
 - Justificantes de los gastos de desplazamiento, en su caso.
 - Justificantes de los gastos de alojamiento y dietas, en su caso.
 - Acreditación, en su caso, de que la formación se ha realizado en euskera.
8. **Euskararen erabilera plana indarrean dagoela egiaztatzea, hala badagokio/** Acreditación, en su caso, de la existencia de un plan de uso del euskera vigente.

.....n, 2021ekoren(e)an.

Sinadura

Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna. / La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA (Información básica sobre el tratamiento de datos personales)	
Arduraduna Responsable	DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA. CIF: P2000001D.- Nafarroa Etorbidea, 17.- 20500.- Arrasate. Tfno.: 943793399. debagoiena@debagoiena.eus , www.debagoiena.eus .
Datuak babesteko ordezkaria Delegado de Protección de Datos	GRUPO S21SEC GESTIÓN, S.A. serviciosdpd@s21sec.com
Xedea Finalidad	Deialdi honetako diru-laguntzak kudeatzea. <i>Gestión de las subvenciones objeto de esta convocatoria</i>
Legitimazioa Legitimación	Interesdunaren adostasuna. <i>Consentimiento de la persona interesada.</i>
Jatorria Procedencia	Interesduna. <i>Interesado</i>
Hartzaileak Destinatarios	Beste Administrazio Publiko batzuk, interesdunak berariaz baimendu badu. <i>Otras Administraciones Públicas, si lo ha autorizado expresamente el interesado.</i>
Kontserbazio epea Plazo de conservación	Deialdi honetako diru-laguntza espedientea artxibatu arte. <i>Hasta el archivo del expediente de subvenciones de esta convocatoria.</i>
Eskubideak Derechos	Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete, bai eta datuak tratatzeari mugak jartzeko edo aurka egiteko eskubideak ere, Datuak Babesteko Ordezkariaren bidez. <i>Los interesados pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos y de limitación u oposición a su tratamiento a través del Delegado de Protección de Datos.</i>